

IKASTARO ERDIPRESENTZIALA

Lankidetza Arloko bitartekarien prestakuntza ikastaroa

**100
ordu**

Ikastaro hau Auzi Zibil eta Merkataritzakoetarako Bitartekaritzari buruzko uztailaren 6ko 5/2012 Legearen zenbait alderdi garatzen dituen Errege Dekretuan eskatutako irizpideei jarraituz eratu da.



NORENTZAT: Kooperatibetan gatazka egoerak artatu behar dituzten arduradun eta erdi mailako arduradunak eta kanpo aholkulariak

Euskadiko Kooperatiben Goren
Kontseiluko Bitartekarien
Erregistrorako Sarbidea



**KOOPERATIBEN
KONTSEILUA**

Euskadiko Kooperatiben Goren Kontseilua
Consejo Superior de Cooperativas de Euskadi





© Gizagune Fundazioa 2017

Saralegi plaza, 6-7. Bilbao

94 473 34 12 | admin@gizagune.net

www.fundaciongizagune.net

Lankidetza Arloko bitartekarien prestakuntza ikastaroa

METODOLOGIA

On line metodologiaren bitartez ikasleek erraz jarraitzen dute ikastaroa eta irakasleek haien ikas prozesuaren jarraipena egin eta laguntza eman diezaiekete.

Ikastaroa zuk nahi duzun lekuan, nahi duzunean eta nahi duzun erritmoan egin dezazun diseinatuta dago; hala ere, oinarritzko egitura bat dago, eta kontrol data batzuk, ikastaroaren garapena egokia izan dadin eta ahalik eta gehien balia dezazun.

Bestalde, horrekin batera landuko diren hainbat saio, kasu eta ariketa ere egongo dira. Hori zure egutegian markatuta egongo da, erraz jarrai dezazun.

Ikastaroa moduluka dago diseinatuta. Modulu bakoitzaren hasieran aurkezpen labur bat egongo da honako hau jasoko duena:

- ▷ Landuko diren edukiak
- ▷ Lortu behar diren helburuak
- ▷ Lortuko diren trebetasunak

Horretarako, honako hau egongo da eskura:

- ▷ **Material didaktikoa:** Modulu bakoitzerako testuak, bideoak, irakurketak, e.a... modulu bakoitzean jarritako helburuak modu egokian lortuko direla bermatzeko.

- ▷ **Material didaktiko gehigarria:** Material gehigarria egongo da, gehien interesatzen zaizkizun gaietan sakontzen laguntzeko. Material horien artean, irakurgai osagarriak, apunte teknikoak, lotura interesgarriak, kasu praktikoak, eztabaida foroak eta horrelakoak egon daitezke.

- ▷ **Tutoretzak hamabostean behin:** zalantzak edo hainbat gai argitzeko.

- ▷ **Kasuen lanketa:** On-line bitartekotzak. On-line bitartekaritzak burutzeko Gizagune Fundazioak homologatua duen plataformaren bitartez gainbegiratutako bitartekotza saioak egingo dira.

- ▷ **Foroak, txatak eta beste multimedia-erreminta batzuk.** Sektorean gauzatutako esperientzia praktikoan eta gaur egungo metodo berritzaileenak bermatzen dituen laguntza tekniko eta teoriko zabal batean dago oinarrituta irakaskuntza. Erabiltzailean eta pasahitzean “demo” hitza jarri besterik ez duzu egin behar. Ikastaroa gaingiditzeko, markatutako atazak eta ariketak egiten joan beharko duzu, taldekako konexioetan eta foro eta txatetan parte hartu amaierako lana egin beharko duzu

EGUTEGIA

URRIA						
AL	AS	AZ	OG	OR	LR	LG
	1	2	3	4	5	6
7	8	9	10	11	12	13
14	15	16	17	18	19	20
21	22	23	24	25	26	27
28	29	30	31			

AZAROA						
AL	AS	AZ	OG	OR	LR	LG
				1	2	3
4	5	6	7	8	9	10
11	12	13	14	15	16	17
18	19	20	21	22	23	24
25	26	27	28	29	30	

Ordu kopurua: 35 ordu presentzial

Derrigorrezko asistentzia: ordu presentzialen % 80

 Ikastaro presentzialeko egunak

Egutegi presentziala

Talde erdipresentzialean 7 orduko 5 jardunaldi antolatuko dira Dekretuan jasotako **35 ordu praktikoen** eskakizuna betetzeko.

Hasiera data urriaren 2a da, eta 2024ko azaroaren 27an amaituko da ikastaroa.

Jardunaldi presentzialak urriaren 2an eta 16an, eta azaroaren 13an eta 27an izango dira, 9:00etatik 14:00etara eta 15:00etatik 17:00etara.

HELBURUAK

OROKORRA

Profesionalak teknikoki gaitzea erakundeetan ager daitezken pertsona nahiz egoera gatazkatsuak kudeatzeko, horrela erakunde eragingarri, ekoizle eta osasuntsuak lor daitezen.

BEREZIAK

- ▷ Erakundeetan sortzen diren gatazka motak zein diren jakitea.
- ▷ Gatazkak sortzean zein funtzionamendu eredu egoten diren ulertzea.
- ▷ Euren lan inguruneetan sor litezkeen tentsioak modu eragingarrian kudeatzeko beharrezko gaitasunak dituzten profesionalak prestatzea.
- ▷ Egoeren diagnostikoa egiteko sistemak ikastea, modu egokian kudeatu ahal izateko.
- ▷ Erakundeetan gatazken ikuspegi positibo bat sustatzea.
- ▷ Erakundeetan prozedura horiek zabaltzea, nagusitzen den kultura izan dadin.

NORENTZAT:

- ▷ Kooperatibetan gatazka egoerak artatu behar dituzten arduradun eta erdi mailako arduradunak
- ▷ Kanpo aholkulariak
- ▷ Interesa duten beste pertsona batzuk

PROGRAMA

1. MODULUA. Kooperatiba ingurunea eta bertako gatazkak

- ▷ Kooperatiba Kultura.
- ▷ Kooperatiba motak.
- ▷ Sozietate organoen funtzionamenduarekin lotutako alderdiak.
- ▷ Bazkide modalitateak.
- ▷ Ekonomi Erregimena.
- ▷ Ekarpenak itzultzea eta eskualtzea.

2. MODULUA. Bitartekaritza eta gatazkak kudeatzeko beste prozesu batzuk

2.1.- Negoziazioa

- ▷ Prestakuntza
- ▷ Garapena.
- ▷ Ixtea.
- ▷ Negoziazioa enpresarentzako gaitasun bat izan dadin lortzea.

2.2.- Bitartekaritza Kooperatibetan

- ▷ Bitartekaritzaren legeko arautzea.
 - Erkidegoko legeak eta Garapeneko Dekretuak.
 - Estatuko legeak eta Garapeneko Dekretuak.
- ▷ Printzipio orokorrak.
- ▷ Eskolak.
- ▷ Bitartekaritzako profesionala. Ezaugarriak eta mugak.
- ▷ Bitartekotza prozesua:
 - Faseak
 - Fase bakoitzeko helburuak.
 - Fase bakoitzean aplikatzekoak diren erremintak.
- ▷ -Barne Bitartekaritza eta Kanpo Bitartekaritza.
- ▷ ON LINE BITARTEKARITZA.
 - Printzipio arautzaileak.
 - Segurtasun eskakizunak.
 - ON-LINE bitartekaritza praktikak.
- ▷ Bitartekaritza etika

2.3.- Gatazkei aurre egiteko sistemen diseinua

3. MODULUA. Kooperatibetako gatazken alderdi orokorrak

- ▷ Gatazkaren definizioa eta berau eratzen duten elementuak.
- ▷ Gatazka egoerak sortzeko prozesua.
- ▷ Tentsioaren neurria.
- ▷ Gatazka egoera iraunarazten duten kausak.
- ▷ Gatazkaren kudeaketa estiloak.
- ▷ Gatazkaren kostua erakundeentzat.
- ▷ Gatazkaren alderdi emozionalak.

4. MODULUA. Gatazken kudeaketa kooperatibetan

- ▷ Gatazkaren Ikuskapena.
 - Gatazkaren analisi sistemak.
 - Ikuskapenaren txostena egitea.
- ▷ Informazioa lortzeko erreminta.
- ▷ Gatazkaren kudeaketa:
 - Kausa zein den, prozedura hautatzea.
 - Goratze maila zein den, prozedura hautatzea.
 - Neurria zein den, prozedura hautatzea.
- ▷ Gatazkaren ikuskapena enpresan nola antolatu.

5. MODULUA. Bitartekaritza erremintak eta trebetasunak

- ▷ Komunikazio estiloak:
- ▷ Giza komunikazioaren axiomak.
- ▷ Birformulazioa, berrenkoadraketa eta berdefinizioa.
- ▷ Egoerak aldatzeko galderak.

IRAKASLEAK



Mª Eugenia Ramos Pérez

Zuzenbidean lizentziaduna. Gatazken Kudeaketa eta Bitartekotzan Masterra. Famili Bitartekaria. Bitartekotza Erakundeetan gradu ostekoa. Gizarte eta Kultur arteko Bitartekaritzan gradu ostekoa. Garapen Pertsonala eta Lidergotzan aditua.

Hainbat unibertsitatetan Master eta gradu ostekoetan irakaslea: Euskal Herriko Unibertsitatea, Bartzelonako Ramón Llull Unibertsitatea, Zaragozako Unibertsitatea, Bartzelonako Unibertsitate Autonomia, Burgoseko Unibertsitatea, Jaume I Unibertsitatea, Madrilgo Unibertsitate Autonomia.



Yolanda Muñoz Hernán

Psikologian lizentziaduna. Gatazken Kudeaketa eta Bitartekotzan Masterra. Unibertsitate Espezialista Mundu Global bateko Giza Eskubideetan. Famili Bitartekotzan Prestakuntza jaso. Famili eta Bikoteko psikoterapeuta. Baztertutako kolektiboekin Gizarte esku-hartzeko teknikaria.

Hainbat unibertsitatetan Master eta gradu ostekoetan irakaslea: Euskal Herriko Unibertsitatea, Bartzelonako Ramón Llull Unibertsitatea, Zaragozako Unibertsitatea, Salamancako Unibertsitateko Valladolid atala, Bartzelonako Unibertsitate Autonomia, Jaume I Unibertsitatea, Alacanteko Unibertsitatea, hainbat lanbide elkargo.



Justizia Ministerioko Bitartekaritza Erakundearen Erregistroan inskribatuak.

Unibertsitateaz kanpoko Ikastetxeen Estatu Erregistroan inskribatuak.

Espainiako Gobernuak Hezkuntza, Kultura eta Kirol Ministerioa.

Gizagune Fundazioa SGSk ebaluatua izan da Gatazken Kudeaketa

eta Bizikidetzaren Sustatzeko zerbitzuak diseinatu eta emateko **ISO**

9001:2015eko betekizunak betetzen dituela-eta ziurtagiria lortua du.



IZEN-EMATEA

IRAUPENA

Ikastaroa erdipresentziala da.

100 ordu. (Auzi Zibil eta Merkataritzakoetarako Bitartekaritzari buruzko uztailaren 6ko 5/2012 Legearen zenbait alderdi garatzen dituen Errege Dekretuaren 5. Artikulua).

100 orduetatik 35 presentzialak izango dira, aipaturako Errege Dekretuko 4. Artikuluan jasotako betekizunari jarraituz.

IZEN-EMATEA

Euskadiko Kooperatiben Goren-Kontseilua

Reyes de Navarra 51, 01013 Vitoria-Gasteiz

Tel.: 945 12 11 55

FAXA: 945 12 22 63

Emaila: info@csce-ekgk.coop

Informazio gehiago:
admin@gizagune.net | www.fundaciongizagune.net | 94 473 3412





© Gizagune Fundazioa 2017

Saralegi plaza, 6-7. Bilbao

94 473 34 12 | admin@gizagune.net

www.fundaciongizagune.net